



PAH - KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA

IRPH STOP GIPUZKOA

MIRENEN HERIOTZA ETA FEDE ONEKO MILAKA ZORDUNEN EGOERA LATZA SALATZEN DITUGU

BANKETXEAK ERRUDUNAK DIRA, ETA GOBERNUAK EUREN JOKAERA KRIMINALAREN LAGUNTZAILE

NAFARROAKO MOBILIZAZIOEKIN BAT EGIN ETA DONOSTIA, BILBO ETA GASTEIZEN ELKARRETARATZEAK DEITZEN DITUGU

Euskal Herria, 2015-3-23

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kaleratzeak Stop eta IRPH Stop Gipuzkoa elkarteok asteburu honetan gertatu den gure adiskide Mirenen heriotza salatzen dugu. Familiarteko eta lagunei gure elkartasuna adierazi nahi diegu, eta baita Nafarroako Kaleratzeak Stop plataformari eta LAB sindikatuari ere.

Banketxeak dira heriotza hauek erantzule zuzenak, eta gobernuak dituzte lagun euren jokaera kriminalean. Kaltetuon plataformetatik askotan salatu dugu Guindos dekretua edo modu desegokian Banketxeen Praktika Egokien Kodea bezala ezaguna dena, 2012an onartua eta orain Bigarren Aukerarako Dekretuarekin eguneratua izan dena, guztiz baliogabea dela. Lege hauek ez dira gai izan iruzur finantzarioaren biktima diren fede oneko milaka zordunen etxebizitzaren enkanteak eta etxegabetzeak ekiditeko, ezta zorrak berrantolatu, zorrak kitatu edota etxea ordainetan eman eta alokairu soziala lortzeko ere. Arrazoa: betetzeko ezinezkoak diren baldintzak, etxebizitzaren prezioa adibidez.

Etxebizitzaren prezioa, burbuila inbentarioaren garaian Nafarroan eta EAEn estatu espainiarreko handienetakoa izan dena, horixe izan da banketxeek izan duten aitzakia Guindos dekretua ez aplikatzeko, eta ondorioz pobreturiko mailegudunen eta euren berme-emaileentzat bigarren aukera ukatzeko.

Premiazkoa da gobernuak, gure kasuan Gasteizkoak, eta arku politiko osoak, Bigarren Aukerarako Kode eraginkor bat onartzea, eta banketxeak euren jokaera kriminala baztertzeko presio egitea. Neurri hauek, jadanik zenbait alderdi politiko eta gizarte eragileen babesa jaso duen Kaleratzeak, Pobrezia eta Berdintasunik Ezaren Aurkako gure Dekalogoaren bosgarren puntuan daude, eta premiazkoa da berehala aplikatzea.

DENUNCIAMOS LA MUERTE DE MIREN Y LA SITUACIÓN DRAMÁTICA DE MILES DE DEUDORES DE BUENA FE

LA BANCA ES CULPABLE, Y LOS GOBIERNOS SON CÓMPLICES DE SUS ACTUACIONES CRIMINALES

NOS SUMAMOS A LAS MOVILIZACIONES DE NAFARROA Y CONVOCAMOS CONCENTRACIONES EN DONOSTIA, BILBO Y GASTEIZ

Euskal Herria, 23-3-2015

Las plataformas Kaleratzeak Stop Desahucios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa e IRPH Stop Gipuzkoa denunciamos la muerte de nuestra compañera Miren este fin de semana en Antsoain, y nos solidarizamos con sus familiares y amigos y con los compañeros de la Plataforma de Afectados por la Hipoteca de Nafarroa y del sindicato LAB.

La banca es culpable de estas muertes y los gobiernos son cómplices de sus actuaciones criminales. Las plataformas de afectados venimos denunciando la inoperancia del mal llamado Código de Buenas Prácticas Bancarias o Decreto Guindos, aprobado en 2012 y ahora actualizado mediante el nuevo Decreto de Segunda Oportunidad. Estas leyes no han servido para parar las subastas ni los miles de desahucios de deudores de buena fe víctimas de la estafa financiera, ni para reestructurar deudas ni conceder quitas, o daciones en pago con alquiler social, por sus draconianos e inasequibles requisitos, como el del precio de la vivienda.

El precio de la vivienda, que en Nafarroa y en la CAV ha sido el más alto del estado español durante la burbuja inmobiliaria, ha sido el pretexto de los bancos para negarse a aplicar el decreto Guindos, y con él cualquier posibilidad de una segunda oportunidad real para los hipotecados arruinados y sus avalistas.

Es urgente que los gobiernos, en nuestro caso el de Gasteiz, y todo el arco político, legislen un Código de Segunda Oportunidad eficaz y que presionen a los bancos para que abandonen su política criminal. Es urgente que estas medidas, contenidas en el punto quinto del Decálogo contra los Desahucios, la Pobreza y la Desigualdad, al que se han adherido ya numerosos partidos y agentes sociales, sean una realidad inmediata.

Ya no valen excusas ni vacilaciones. Kutxabank,



PAH - KALERATZEAK STOP DESAHUCIOS ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA

IRPH STOP GIPUZKOA

Jadanik ez dago aitzakiatarako denborarik. Kutxabank da etxegabetzen lehena, Praktika Egokien Kodea behin eta berriz ukatzen du etxebizitzaren prezioa aitzakiatzat hartuta, eta etxea ordainetan hartu eta alokairu soziala ematea sistematikoki ukatzen ditu, eta gizartearen aurrean kontuak ematen lehena izan behar du, gizartearen ekimenez sortua izan zelako eta bere zuzendaritzan PNV, PSE, PP eta CCOOren ordezkariak daudelako. Eta segidan etorri beharko dute Laboral Kutxak eta gainerako banketxeek.

Milaka familien sufrimendua eta heriotza gehiago izatea daude jokoan. Exekuzio-hipotekario prozedura guztiak bertan behera geratu behar dute berehala, espainiar legedia Europar Batasuneko betebeharrak egokitu bitartean. Gainera, fede oneko zordun guztiek benetako bigarren aukera izan behar dute: gutxienez 5 urteko karentziak, Euriborraren arabera interesak bakarrik ordainduz, zorrak kitatzeak eta etxebizitza ordainetan eman eta alokairu soziala. Finean, enkanteak, etxegabetzeak eta heriotzak ekidindo dituzten neurriak. Mirenen heriotza adibidez: Faureciatik kaleratua izan ondoren Laboral Kutxak zorra berrantolatzea ukatzen zion gutuna jaso ondoren asteburu honetan hil dena.

Behean sinatzen dugun plataformok bat egiten dugu Nafarroako deialdi guztiekin:

- **Astelehena 12:00etan Buztintxuriko Laboral Kutxaren parean.**

- **Asteartea 19:00etan Antsoingo Udal Plazan.**

- **Asteazkena 10:00etan Orkoiengo Udaletxean eta 11:15etan Faurecia Orkoienen parean.**

- **Larunbata 18:00etan Gurutze Enparantzatik manifestazioa Iruñean.**

Eta ondoko elkarretaratzeak deitzen ditugu gainera:

- **Donostia: asteartea, 19:00, bulebarreko kioskoan (Laboral Kutxaren bulego parean)**

- **Bilbo: asteazkena, 18:00 Areatzako Laboral Kutxaren aurrean.**

- **Gasteiz: asteartea, eguerdiko 12:00tan Dato kaleko Laboral Kutxaren aurrean.**

- **Deialdi gehiago izango dira herriz-herri.**

que es la primera en desahuciar, que niega repetidamente la aplicación del Código de Buenas Prácticas en base al precio de la vivienda, y que rechaza sistemáticamente la dación en pago con alquiler social, debe ser la primera en dar cuentas ante la sociedad por ser una entidad financiera creada con el esfuerzo de toda la sociedad y en cuyos órganos de dirección hay representantes elegidos por PNV, PSE, PP y CCOO. Kutxabank debe dar ejemplo en Euskadi, seguido de la Caja Laboral y demás entidades financieras.

El sufrimiento de miles de familias y el riesgo de que se pierdan más vidas humanas está en juego. Todos los procedimientos de ejecución hipotecaria deben suspenderse inmediatamente hasta que la legislación española respete los requerimientos de la Unión Europea. Todos los deudores de buena fe deben disponer de una segunda oportunidad real que como mínimo contemple carencias de hasta 5 años pagando exclusivamente intereses según euribor, quitas de deuda y dación en pago con alquiler social. Son necesarias medidas que impidan las subastas y los desahucios, y en última instancia eviten dramas como esta última muerte, la de nuestra compañera Miren, despedida de Faurecia y que había recibido una carta de Caja Laboral denegando la reestructuración de su deuda.

Las plataformas firmantes nos sumamos a todas las movilizaciones convocadas en Navarra:

- **Lunes a las 12:00 frente a Caja Laboral de Buztintxuri.**

- **Martes a las 19:00 en la Plaza del Ayuntamiento de Antsoain.**

- **Miércoles a las 10:00 en el Ayuntamiento de Orkoien y a las 11:15 frente a Faurecia Orkoien.**

- **Sábado a las 18:00 desde la Plaza de la Cruz, manifestación en Pamplona.**

Y convocamos además las siguientes concentraciones:

- **Donostia: martes 19:00, en el quiosco del Boulevard (frente a la sucursal de Caja Laboral)**

- **Bilbao: miércoles 18:00 frente Caja Laboral de el Arenal.**

- **Vitoria-Gasteiz: martes 12:00 del mediodía frente a la Caja Laboral de la calle Dato.**

- **Habrará más convocatorias pueblo a pueblo.**